- Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onartzeko ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21eako, mendiei buruzkoa.
- 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa.
- Ley 2/2013, de 29 de mayo, de protección y uso sostenible del litoral y de modificación de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas.
- Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zona-banatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu emisioei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen testu bateratua onartzen duena, eta berori garatzeko erregelamenduak.
- 400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren espainiar zatiaren Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

**Estatal**

- Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.
- Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo.
- Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, y demás normativa nacional sobre conservación de la naturaleza.
- Ley 43/2003, de 21 de noviembre, de montes.
- Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas.
- Ley 2/2013, de 29 de mayo, de protección y uso sostenible del litoral y de modificación de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas.
- Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas
- Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del ruido y Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, que desarrolla la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del ruido, en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas.
- Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas y reglamentos para su desarrollo.
- Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.
- Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.

**Autonomia Erkidegoan**

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Ingurumena Babesteko lege orokorra.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urei buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko Legearen testu bategina onartzen duena eta Natura zaintzeari buruzko erkidegoko gainerako araudia.
- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23ko, nekazaritza eta elikadura politikari buruzkoa.

**Autonómica**

- Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del Medio Ambiente.
- Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.
- Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.
- Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y demás normativa autonómica sobre conservación de la Naturaleza.
- Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.
- Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de política agraria y alimentaria.

**Gipuzkoa**

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.

**Gipuzkoa**

- Norma Foral 7/2006 de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa.

## 4.- INGURUMEN-EBALUAZIOAREN GEOGRAFIA-EREMUA. URRETXUKO UDAL-BARRUTIKO BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK

Ebaluazioaren xede den geografia-eremua planean aurreikusitako esku-hartzeek

## 4.- ÁMBITO GEOGRÁFICO OBJETO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL. RECURSOS Y ÁREAS RELEVANTES DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE URRETXU

El ámbito geográfico objeto de evaluación deberá ser suficiente para considerar el

sorrarazitako eragin guztiak aintzatesteko modukoa izan beharko da, hirigintza arloko esku-hartzeak ez ezik, araudian izandako aldaketek eragindako ingurumen arloko ondorioak ere barne hartuz. Oro har, Urretxuko udal-barrutia hartuko du, nahiz eta zenbait alderdik udal-barrutitik haragoko lurralde baten gaineko eraginari buruzko azterketa eska dezaketen, esate baterako, paisaiaren gaineko edo ur baliabideen gaineko eragina aztertzerako orduan.

conjunto de las afecciones provocadas por las actuaciones previstas en el plan, incluyendo no sólo las actuaciones urbanísticas, sino también las consecuencias ambientales de las modificaciones normativas. En general, abarcará el término municipal de Urretxu, aunque ciertos aspectos puedan requerir el análisis de los efectos sobre un territorio que exceda el término municipal, por ejemplo, a la hora de estudiar la afección sobre el paisaje o sobre los recursos hídricos.

Ingurumen-ebaluazioa xehetasun gehiagoz egingo da alternatiba ezberdinek esku-hartze inpaktuzkoak aurreikusten dituzten eremuetan, esate baterako, hirigintza-garapenak planteatzen diren eremuetan.

La evaluación ambiental se realizará con un mayor grado de detalle para aquellas áreas en las que las distintas alternativas prevean actuaciones impactantes, como es el caso de los ámbitos en los que se plantean desarrollos urbanísticos.

Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio bibliografiko eta kartografikoa behatu ondotik, eta beste administrazio batzuen aldetik jasotako erantzunak aintzatetsi ostean, Urretxuko udal barrutian ingurumenarekin lotutako interes berezia duten baliabide eta espazio hauek identifikatu dira:

Consultada la información bibliográfica y cartográfica existente en esta Dirección General de Medio Ambiente y consideradas las respuestas recibidas de otras administraciones, se han identificado los siguientes recursos y espacios de especial interés ambiental en el término municipal de Urretxu:

A. **Baso natural eta seminaturalak.** HAPO planak ondoen kontserbatutako harizti, pagadi, haltzadi eta hostozabalen baso mistoko masa eta unadak babestu behar ditu, horiek *Babes Bereziko* kategorian sartuz, Nekazaritza eta Basogintzako LPS planean (46. artikulua) eta Lurraldearen Antolamendurako Artezbideetan (8. kapituluko 6.8.1. ildoa) zehazten den moduan. Horri dagokionez, kontserbazio-balio handieneko unadak identifikatzeko diagnosi bat egitea eta I.3. Lurzoruaren Begetazioa eta Erabilerak eta II.6. planoetan egindako zedarritzea horren arabera hobetu dadila iradokitzen da. Halaber, ahal den heinean, kontserbazio aktiborako neurriak hartzeko ahalegina egingo da, esate baterako, titulartasun pribatukoak diren balio ekologiko handiko basoak lurzoruaren udal ondarean sartzea edo lurraldearen zaintzarako adostasunak ezartzea, haren kontserbazioa eta masa helduagoetarako bilakaera bermatze aldera.

A. **Bosques naturales y seminaturales**. El PGOU debe proteger las masas y rodales mejor conservados de robledales, hayedos, alisedas y bosque mixto de frondosas mediante su inclusión en la categoría de *Especial protección,* tal y como se especifica en el PTS Agroforestal (art. 46) y en las DOT (directriz 6.8.1 del Capítulo 8). A estos efectos, se sugiere que se realice un diagnóstico específico para identificar los rodales de mayor valor de conservación y que se mejore en consonancia la delimitación efectuada en los planos I.3. Vegetación y Usos del Suelo y II.6. Asimismo, en la medida de lo posible, se procurará la provisión de medidas de conservación activa, como la incorporación de los bosques de alto valor ecológico que sean de titularidad privada al patrimonio municipal de suelo o el establecimiento de acuerdos de custodia del territorio que garantice su conservación y evolución hacia masas más maduras.

**B. Batasunaren intereseko habitatak.** Modu berean, herrian dauden Batasunaren intereseko habitatak kontserbatu eta hobetzeko ahalegina egingo da, lurzoruaren erabileren zona-banatze eta erregulazio egokia eginez, habitat mota bakoitzaren presentzia eta horiek kudeatzeko eskakizunak kontuan izanik. Edozein kasutan, aurreko atalean adierazi den moduan, ondoen kontserbatutako erkidegoko baso-habitatak nahiz Batasunaren intereseko beste zenbait habitat (EU 4030), horiek ere ondo kontserbatuak, *Babes Bereziko* kategoriarekin lotutako erabileren erregulazioarekin bateragarri izanik, kategoria haren barnean sartu beharko lirateke.

**C. Mehatxatutako flora eta fauna.** HAPO planaren ingurumen-agiri estrategikoan Mehatxatutako Fauna eta Floraren Euskal Katalogoan barneratzen diren flora eta faunako espezie ugari aipatzen dira. Populazio horien gaineko eraginak ekidite aldera, HAPO planean espezie katalogatu horien intereseko zonaldeen babes egokia aurreikusi beharko da, populazio horientzat mehatxua ekar dezaketen hirigintza arloko esku-hartzeak edo lurzoruaren antolamendu edo ustiapenak barneratzen direnean.

**D. Nekazaritza-ahalmen handiko lurzoruak.** Urretxuko Udal Barrutian nekazaritza-ahalmen egokidun lurzoru-azalera urria dagoenez, HAPO planak lurzoru mota hori zaintzea izan behar du xede eta, bereziki, produktiboenak eta Nekazaritza eta Basogintza LPS planak *Balio Estrategiko Handikotzat* kalifikatuak (Sasieta baserriaren ingurua eta Sasietaetxeberri, Eguzkitza, Gerra eta Etxeberriko zonaldea). Horri dagokionez, dokumentazioan Gerra sektoreko industria-lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeko planteatzen den alternatiba lehenetsiko litzateke, 2012ko Arau Subsidiarioetan aurreikusia eta egikaritu ez dena.

**E. Paisaiaren kalitatea.** Paisaiaren kalitatearen mantenu eta hobekuntza

B. **Hábitats de interés comunitario.** De la misma forma, se procurará la conservación y mejora de los hábitats de interés comunitario de la localidad, a través de una adecuada zonificación y regulación de usos del suelo, teniendo en cuenta la presencia y los requerimientos de gestión de cada tipo de hábitat. En cualquier caso, tal y como se ha señalado en el apartado anterior, los hábitats forestales comunitarios mejor conservados, así como otros hábitats de interés comunitario (EU 4030), igualmente bien conservados que sean compatibles con la regulación de usos asociada a la categoría de *Especial protección* deberían ser incluidos dentro de esta.

C. **Flora y fauna amenazada**. El documento ambiental estratégico del PGOU cita varias especies de flora y fauna incluidas en el Catálogo Vasco de Fauna y Flora Amenazada. Para evitar afecciones a estas poblaciones, el PGOU deberá prever una adecuada protección para las zonas de interés de esas especies catalogadas en las que se contemplen actuaciones urbanizadoras o de ordenación o explotación del suelo rural que puedan suponer una amenaza para estas poblaciones.

D. **Suelos de alta capacidad agraria.** Ante la escasa superficie de suelos con adecuada capacidad agraria existente en el T.M de Urretxu, el PGOU debe procurar preservar este tipo de suelos y, en especial, los más productivos y los calificados por el PTS Agroforestal como de *Alto Valor Estratégico* (entorno del caserío Sasieta y Sasietaetxeberri, Eguzkitza, Gerra y zona de Etxeberri). En este sentido tendría preponderancia la alternativa planteada en la documentación de desclasificar el suelo urbanizable industrial del Sector Gerra, previsto en las NNSS de 2012, y no ejecutado.

E. **Calidad del Paisaje**. El mantenimiento y mejora de la calidad paisajística debe ser

aintzatetsi egin beharko litzateke plangintzako eskala ezberdinetan, hala egiturazko antolamendua burutuz eta HAPO planaren bidez erabilerak esleituz, nola garapenerako plangintzan eta urbanizazio-proiektuetan urbanizazio-baldintzak ipiniz. Horren harira, egokitzat jotzen da Irimo mendiaren gailur-lerroa eta ingurune hurbila (Karakate-Irukurutzeta-Elosumendi-Agerreburu-Itxumendi-Gorla-Astobiaga gailurreriaren segida modura) paisaia-balioko eremutzat hartzeko proposamena, zeinaren antolamendurako gainjarritako baldintzatzaile batzuk ezarriko baitira. Halaber, eta eskala txikiagoan, garapenerako eremu ezberdinetan ezartzen diren hirigintzako esku-hartzeei dagokienez, HAPO planaren hirigintza-fitxetan ezarriak, paisaia aldetiko integraziorako ikerketa bat barneratzea iradokitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusten den eran.

F. **Hidrologia.** Urretxuko udal barrutia hainbat ibilguk zeharkatzen dute. Horien kasuan, HAPO planean aintzatetsi beharreko ingurumen arloko helburuak egoera ekologiko on bat lortu eta degradazio gehigarririk ez izatea dira. Ingurumen-ikerketa estrategikoak balioetsi egin beharko du HAPO planean planteatzen diren esku-hartze alternatiba ezberdinen garapenak zer-nola eragiten dion jabari publiko hidraulikoari, ez soilik zuzenean ibilgailuetan eragina dutenak baizik eta balizko zeharkako eraginak ere balioetsiz, esate baterako, hondakin-uren isurien ondoriozkoak. Halaber, inpaktu horiek minimizatzeko neurriak proposatu beharko dira. Lur urbanizaezinaren kategorizazioan, ibilgu guztiak *Azaleko Uren Babesa* izeneko kategorian barneratu beharko dira. Azkenik, dagozkion hirigintza-fitxetan EAEko ibai eta errekei buruzko LPS planaren arabera errespetatu beharko diren atzeraemanguneak barneratu beharko

considerado en las diferentes escalas del planeamiento, desde la ordenación estructural y la asignación de usos realizada a través del PGOU, hasta en el establecimiento de condiciones de urbanización en el planeamiento de desarrollo y los proyectos de urbanización. En este sentido, se considera apropiada la propuesta de considerar la línea de cumbres y entorno más próximo del Irimo (como continuación del cordal Karakate-Irukurutzeta-Elosumendi-Agerreburu-Itxumendi-Gorla-Astobiaga), como un ámbito de valor paisajístico al que se le establecerá unos condicionantes superpuestos a su ordenación. Asimismo, y a menor escala, se sugiere que las actuaciones urbanísticas que se establezcan en los distintos ámbitos de desarrollo establecidos en las fichas urbanísticas del PGOU cuenten con un estudio de integración paisajística, tal y como se contempla en el artículo 7 del Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

F. **Hidrología.** Por el término municipal de Urretxu discurren varios cauces para los que el objetivo ambiental que deberá considerar el PGOU será la consecución del buen estado ecológico y la no degradación adicional. El estudio ambiental estratégico deberá valorar cómo afectará al dominio público hidráulico el desarrollo de las diferentes alternativas de actuación que plantea el PGOU, no sólo las que afecten directamente a los cauces sino también los posibles efectos indirectos procedentes, por ejemplo, de la generación de vertidos de aguas residuales. Se deberán también proponer medidas para la minimización de dichos impactos. En la categorización del suelo no urbanizable, todos los cauces. deberán ser incluidos dentro de la categoría de *Protección de Aguas Superficiales.* Finalmente, se deberá incluir en las fichas urbanísticas correspondientes los retiros que habrá que respetar según el PTS de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV, y

dira, eta ahal den heinean, urertzeko zerrenda leheneratzeko proposamena gaineratuko da.

G. **Kultura Ondarea osatzen duten Ondasunak.** HAPO planak deklaratutako edo inbentarioan sartutako kultura ondareak identifikatu egin behar ditu eta babes egokia eman behar die, eta baita ustezko zonalde arkeologikoei edo zonalde megalitikoei ere. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena kontuan izango da.

H. **Zarata.** EAEko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoari erreparatuz, HAPO planaren eremuko zona-banaketa akustikoa egin beharko da, aipatu Dekretuko 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako *eremu akustikoak* aintzatetsiz eta, horrez gain, hirigintza-agirietan zona-banaketa hori erakusten duen plano bat gaineratu beharko da. Halaber, aurreikusitako hirigintza-garapen batzuetan litekeena da araudian ezarritako kalitate akustikoko helburuekin bat ez datozen zarata-mailak egotea. Horrenbestez,HAPO planean dokumentu honetako 6. atalean horri dagokionez ezarritakoa aintzatetsiko da.

I. **Lurzoru kutsatuak.** Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak hartzen dituzten kokapenen EAEko inbentarioan, nahiz ingurumen-agirian jasotzen den informazioan, Urretxuko udalerrian kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruen eremu ezberdinak identifikatzen dira, eta eremu horietako zenbaiten gainean hirigintza-garapena egikaritzea aurreikusten da. Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak hartu dituen edo hartzen dituen lurzoru batean erabilera-aldaketa bat gertatzen bada, lurzoruaren kalitatea deklaratuko da. Halaber, eremu horietako bakoitzaren hirigintza-fitxetan kutsagarriak izan daitezkeen lurzoru horien existentzia eta

en la medida que sea posible se incorporarán propuesta de restauración de la franja ribereña.

G. **Bienes integrantes del Patrimonio Cultural.** El PGOU debe identificar y dotar de una protección adecuada a los bienes culturales declarados o inventariados, así como a las zonas de presunción arqueológica o zonas megalíticas. A este respecto se tendrá en cuenta el informe de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

H. **Ruido**. Atendiendo a lo establecido en el artículo 23 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV, se deberá realizar la zonificación acústica del ámbito del PGOU, considerando las *áreas acústicas* definidas en el artículo 20 y el anexo III del citado Decreto e incorporar en la documentación urbanística un plano en que se muestre dicha zonificación. Asimismo, algunos de los desarrollos urbanísticos previstos pueden presentar unos niveles acústicos que no se adecuen a los objetivos de calidad acústica establecidos en la normativa, por lo que el PGOU considerará lo que se establece al respecto en el siguiente apartado 6 de este documento.

I. **Suelos contaminados.** El inventario de emplazamientos con actividades potencialmente contaminantes del suelo de la CAPV, así como la información incorporada en el documento ambiental identifican diversos ámbitos con suelos potencialmente contaminados en el municipio de Urretxu, algunos de los cuales van a ser objeto de desarrollo urbanístico. Conforme a la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, en el caso de que se produzca el cambio de uso en un suelo que haya soportado o soporte actividades o instalaciones o actividades potencialmente contaminantes se procederá a declarar la calidad del suelo. Asimismo, se deberá incluir en las fichas urbanísticas de cada una de esos

horrek berekin dakartzan legezko betebeharrak jaso beharko dira.

J. **Natura arriskuak (uholde arriskua eta higagarritasuna).** Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen dekretuak, hau da, premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.b) artikuluan ezarritakoa betez, antolamenduaren eremuko natura arriskuei buruzko mapa erantsi behar zaio ingurumen-ikerketa estrategikoari. Ingurumen-ikerketa estrategikoak oraingo arriskuak murrizteko edo gora egin ez dezaten lortzeko neurri zuzentzaileak finkatuko ditu. Proposatutako plangintzan kontuan hartu beharko dira jarduerak eta erabilerak arautzeko ingurumen arrisku horiek. Horrela, Hori horrela, uholde arriskuei dagokienez, EAEko ibai eta erreka ertzei buruzko LPS planean jasotako *uholdeak prebenitzeari eta jarduketa hidraulikoei buruzko berariazko araudian* eta ekainaren 7koan, *Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren espainiar zatiaren Plan Hidrologikoa onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuan* ezarritakoa beteko da. Bestalde, higadura-prozesuek eragindako eremuei dagokienez, ingurumen-ikerketa estrategikoan eta HAPO planean bertan udalerrian lur mota hori behar bezala identifikatzeko ahalegina egingo da, eta lurzoru urbanizaezinen kategorizazioak ezartzen duen antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile modura zehaztu eta aintzatetsiko da (Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko 56. eta 72. artikuluekin bat etorriz).

ámbitos la existencia de dichos suelos potencialmente contaminados y las obligaciones legales que ello conlleva.

J. **Riesgos Naturales (inundabilidad y erosionabilidad).** En correspondencia con el artículo 31 b) del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se debe incorporar al estudio ambiental estratégico un mapa de riesgos naturales del ámbito de ordenación. El estudio ambiental estratégico establecerá medidas correctoras con el fin de disminuir o evitar el incremento de los riesgos existentes. El planeamiento propuesto deberá tener en cuenta estos riesgos ambientales para la regulación de usos y actividades. Así, respecto a los riesgos de inundabilidad, se estará a lo establecido en la *Normativa específica sobre prevención de inundaciones y regulación hidráulicas* en el PTS de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV y en el *Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el plan hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.* Por otra parte, en cuanto a las áreas afectadas por procesos erosivos, el estudio ambiental estratégico y el propio PGOU procurarán su adecuada identificación territorial en el municipio y su ajustada definición y consideración como condicionante superpuesto a la ordenación que establezca la categorización del SNU (según artículos 56 y 72 del PTS Agroforestal).

## 5.- LUR URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUAN AINTZATESTEKO INGURUMEN ALDERDIAK

HAPO planean natura-baliabideen eta nekazaritza-baliabideen erabilera iraunkorra bermatzeko eta hartako osagai baliotsu edota ahulenei babes egokia emateko lur

## 5.- ASPECTOS AMBIENTALES A CONSIDERAR EN LA ORDENACIÓN DEL SUELO NO URBANIZABLE

El PGOU debe establecer una ordenación del suelo no urbanizable que garantice el uso sostenible de los recursos naturales y agrarios y dote de una protección adecuada a sus

urbanizaezinaren antolamendu bat finkatu behar da. Antolamendu hori udalerriko lur urbanizaezin guztietako erabilerak eta jarduerak arautuz gauzatu behar da, Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean zehaztutako antolamendu-kategoriak esleituz.

Lur urbanizaezinaren kategorizazioa zonalde bakoitzaren ezaugarriak, zonalde horien harrera-ahalmena, ahultasuna eta baitaratzen dituzten natura-baliabideen balioa oinarritzat hartuz burutuko da. Horretarako, *lur urbanizaezinaren* zona-banaketaren proposamen orokorra izaneko II.6 planoan islatzen den erabileran sailkapena zehaztu eta hobetzea iradokitzen da, aldez aurretik udal barrutiaren bitarteko fisiko eta biologikoaren diagnosi bat eginez, zonalde bakoitzak baliabideei, paisaiari, ekosistemei eta erabilera-ahalmenari buruz duen egoera zehaztekoa. Antolamendu horretan txosten honetako aurreko 4. atalean aipatutako alderdi ezberdinak hartu beharko dira kontuan (Nekazaritza eta Basogintzako LPS planaren arabera *Babes Bereziko* kategoria edota "*Balio Estrategiko Handiko" Nekazaritza eta Abeltzaintzako* kategoria aintzatestea), eta haren erregulazioan Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizean ezartzen diren erabilerak kontuan hartuz.

Halaber, lur urbanizaezinean onargarriak diren jarduera eta instalazioen kokapen eta garapenerako baldintzak finkatu behar direla uste da, HAPO planaren arauzko erregulazioaren barnean edo horri buruz berariazko ordenantza arau-emaileak eratu eta onartuz. Hainbat alderdi arautuko dira, besteak beste, hondakin-uren bilketa eta tratamendu egokia, obra eta espazio degradatuen paisaia aldetiko leheneratzea, pisten irekiera, egituren paisaia aldetiko integrazioa, heskaien kontserbazioa edo landa-zonaldea eta natura-zonaldea ingurumen arloan hobetzeko beharrezkotzat zehazten diren bestelako alderdiak.

componentes más valiosos y/o frágiles. Dicha ordenación debe efectuarse a través de la regulación de usos y actividades para el conjunto de suelo no urbanizable del municipio, por medio de la asignación de las categorías de ordenación definidas en las Directrices de Ordenación del Territorio y en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal.

La categorización del suelo no urbanizable se realizará basándose en las características de cada zona, su capacidad de acogida, la fragilidad y el valor de los recursos naturales que alberga. A estos efectos, se sugiere que se precise y mejore la clasificación de usos reflejada en el plano II.6. Propuesta de zonificación *global del suelo no urbanizable*, mediante un diagnóstico previo del medio físico y biológico del término municipal, que determine el estado de los recursos, el paisaje y los ecosistemas y la capacidad de usos de cada zona. En dicha ordenación se deberán tener en cuenta los diversos aspectos mencionados en el anterior apartado 4 de este informe (consideración de la categoría de *Especial protección,* categoría de *Agroganadera de "Alto Valor estratégico"* según PTS Agroforestal, etc.), y teniendo en cuenta en su regularización los usos que se establecen en la Matriz de Regulación de Usos y Actividades del PTS Agroforestal.

Asimismo, se considera que, ya sea dentro de la propia regulación normativa del PGOU o a través de la elaboración y aprobación de ordenanzas reguladoras específicas al respecto, se deben de fijar las condiciones para el emplazamiento y desarrollo de actividades e instalaciones admisibles en el suelo no urbanizable. Regularán aspectos tales como la adecuada recogida y tratamiento de las aguas residuales, la restauración paisajística de obras y espacios degradados, la apertura de pistas, integración paisajística de estructuras, la conservación de setos u otros aspectos que se determinen como necesarios para la mejora ambiental de la zona rural y natural.

## 6.- HIRIGINTZA-LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAEZINA ZEDARRITU ETA ANTOLATZEAN AINTZATESTEKO INGURUMEN ALDERDIAK

Txosten honetako 3. atalean aipatutako helburu eta irizpideekin bat etorriz, hiri-eremuak antolatu eta sektore urbanizagarri berriak zedarritu eta, hala badagokio, antolatzean, gomendio hauek hartuko dira kontuan:

A. HAPO planean barneratzen diren hirigintza arloko esku-hartzeak egikaritzean proportzionaltasun-irizpideak beteko dira eta une bakoitzean egiaz dauden premiak aintzatetsiko dira, lurzoruaren neurriz gaineko kontsumoa ekidinez.

B. Bizitegi-eremuetan eta ekonomia-jardueren eremuetan eraikinen iraunkortasuna eta ingurumenaren kalitatea bermatzeko ahalegina egingo da, eraikuntza eta urbanizazioko ordenantzen bidez, edo eremu eta sektore horien hirigintza-fitxen xehetasunezko antolamenduan helburu hauek dituzten irizpide eta baldintzak sartuz:

- Hiri-zonaldeetan eta urbanizagarrietan natura arriskuen eraginpean egotea ekiditea.
- Eraikuntza berrien energia-efizientzia bermatzea, eraikinen orientazioa kontuan hartuz beren portaera energetikoa hobetu eta eguzki-argia aprobetxatzeko, isolamendu termikoa ahalbidetzeko, etab. Halaber, ahalegina egingo da eraikuntza berriek energia berriztagarriak (eguzkiarena, eolikoa, etab.) sortzeko aukerak aprobetxa ditzaten. Horri dagokionez, Eraikuntza Kode Teknikoarekin bat etorriz, eguzki-hargailuak eta etxeko ur beroaren hornidurarako metagailuak edota berogailua ipiniko dira.

• Berogailu-sistema banatua ezartzeko aukera aztertuko da, ahal dela, energia berriztagarriko iturrietatik

## 6.- ASPECTOS AMBIENTALES A CONSIDERAR EN LA DELIMITACIÓN Y ORDENACIÓN DEL SUELO URBANO Y URBANIZABLE

En consonancia con los objetivos y criterios mencionados en el apartado 3 de este informe, en la ordenación de las áreas urbanas y en la delimitación y ordenación, en su caso, de nuevos sectores urbanizables, se considerarán las siguientes recomendaciones:

A. La ejecución de las actuaciones urbanísticas contempladas en el PGOU deberá atender a criterios de proporcionalidad y se ajustará a las necesidades efectivamente existentes en cada momento, evitando un consumo excesivo de suelo.

B. Se procurará garantizar la sostenibilidad de las edificaciones y la calidad ambiental de las áreas residenciales y de actividades económicas, introduciendo, a través de las ordenanzas de edificación y urbanización o en la ordenación pormenorizada de las fichas urbanísticas de esas áreas y sectores, criterios y condiciones destinadas a:

- Evitar la exposición a riesgos naturales de las zonas urbanas y urbanizables.
- Garantizar la eficiencia energética en las nuevas edificaciones, teniendo en cuenta la orientación de los edificios para mejorar su comportamiento energético y el aprovechamiento de la luz solar, su aislamiento térmico, etc. Asimismo, se procurará que las nuevas edificaciones aprovechen las posibilidades de generación de energías renovables (solar, eólica, etc.). En este sentido, de acuerdo con el Código Técnico de Edificación, se establecerán captadores solares y acumuladores para el suministro de agua caliente sanitaria y/o calefacción.

• Se analizará la posibilidad de establecer sistemas de calefacción distribuida, a ser posible, a partir de

abiatuz.

Eremu ezberdinetako espazio publikoetan eta eraikin berrietako baterako espazioetan kontsumo txikiko argiztapen-sistemak erabiliko dira, aldi berean, argi-kutsadura ekiditekoak.

- Eraikin berrien eta hirigintza-azpiegituren integrazio bisual nahiz estetikoa, Urretxuko udal barrutiaren paisaia kalitatea zainduz.

C. Udalerriaren antolamenduan hots-kalitatea aintzatestea, bereziki, bizitegi-eremuak finkatu eta diseinatzerakoan. Horretarako, eta "Arau Subsidiarioetako berrikuspeneko Soinuaren Ikerketa" abiapuntutzat hartuz, Urretxuko HAPO plana idazten denean udalerriko eremu eta sektore ezberdinetako hots-kalitatearen diagnosi bat aurkeztuko da, hots-kalitateko helburuak urratzen dituzten espazioak hautemanez, horietan hobekuntza-planak planteatze aldera. HAPO planean udalerriaren soinuaren araberako zona-banaketa bat jaso beharko da, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz. Edozein kasutan, etorkizunean hirigintza-garapenak hartuko dituztela aurreikusten den sektore edo eremuetan, eta HAPO planean xehetasunez antolatzen badira, hotsaren inpaktuari buruzko ikerketa bat barneratu beharko da, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.

D. Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza-arau partikularretan xehetasunezko antolamenduan eta hirigintza-proiektuetan nahitaez aintzatetsi beharreko ingurumen baldintzen zerrenda bat jaso beharko da. Horien artean, hirigintzaren egikaritzean aplikatu beharreko babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak barneratuko dira eta baita, hala badagokio, urbanizazio-gastu modura aintzatetsi beharreko neurri konpentsatzaileak ere.

fuentes de energía renovable.

En los espacios públicos de los diferentes ámbitos y en los espacios comunes de las nuevas edificaciones se utilizarán sistemas de iluminación de bajo consumo y que, asimismo, eviten la contaminación lumínica.

- La integración visual y estética de las nuevas edificaciones e infraestructuras urbanas, preservando la calidad paisajística del término municipal de Urretxu.

C. Considerar la calidad acústica en la ordenación del municipio, en especial, en el establecimiento y diseño de las áreas residenciales. A estos efectos, y partiendo del "Estudio Acústico de la revisión de las NNSS" con la redacción del PGOU de Urretxu se presentará un diagnóstico de la calidad acústica de las distintas áreas y sectores del municipio, detectándose los espacios donde se superen los objetivos de calidad acústica de cara a plantear planes de mejora. El PGOU deberá contener una zonificación acústica del municipio de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV. En cualquier caso, aquellos sectores o áreas en los que se prevean futuros desarrollos urbanísticos y que el PGOU ordene pormenorizadamente deberán de contar con un estudio de impacto acústico según lo dispuesto en el art. 36 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre.

D. Las normas urbanísticas particulares de cada una de las áreas y sectores incluirán una lista con las condiciones ambientales que deberán ser asumidas preceptivamente en la ordenación pormenorizada y en los proyectos de urbanización. Entre ellas, se incluirán las medidas protectoras y correctoras que deban ser aplicadas en la ejecución urbanística, así como, en su caso, las medidas compensatorias que deben asumirse como gastos de urbanización.

## 7.- INGURUMEN-IKERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Urretxuko Udalak eratu behar duen ingurumen-ikerketa estrategikoa (IIE) HAPO planaren zati izango da eta hartan plana aplikatzetik erator daitezkeen ingurumenaren gaineko balizko eragin adierazgarriak identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira, eta baita alternatiba zentzuzkoak eta teknikoki nahiz ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak ere, hura aplikatzean ingurumenaren gaineko eragin kaltegarriak prebenitu edo minimizatu eta ingurumenari eta iraunkortasuni dagokienez ekintza positiboak planteatze aldera.

Ingurumen-ikerketa estrategikoak ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legeko IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, gutxienez, eta baita plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ingurumen arloko iraunkortasun-txostenerako ezartzen den edukia ere.

Eranskin horietan zehaztutako atalak garatzerakoan txosten honetako aurreko ataletan adierazten joandako alderdiak nahiz aurkezten diren kontsulta eta arrazoibideei erantzunez administrazioek, instituzioek eta interesdunek problematiko modura hautemandako ingurumen arloko alderdiak jorratu beharko dira, eta honakoa kontuan izanik:

### 7.1 Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programekin izan dezakeen harremana.

Ingurumen-ikerketa estrategikoak HAPO planaren edukiaren laburpen bat jaso behar du (edo hartara jo behar du). Bertan aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako esku-hartze nahiz zehaztapenak deskribatuko dira, aintzatetsitako gainerako alternatibekin batera. Halaber, esku-hartzeen denbora-plangintza eta planean zedarritutako eremuak xehetasunez planifikatzeko aurreikusten diren garapen-

## 7.- CONTENIDO Y ALCANCE DEL ESTUDIO AMBIENTAL ESTRATÉGICO

El estudio ambiental estratégico (EsAE) que debe elaborar el Ayuntamiento de Urretxu, constituirá una parte integrante del PGOU y en él se identificarán, describirán y evaluarán los posibles efectos significativos sobre el medio ambiente que puedan derivarse de la aplicación del plan y las alternativas razonables, técnica y ambientalmente viables, con el fin de prevenir o minimizar los efectos adversos sobre el medio ambiente de su aplicación y plantear acciones positivas sobre el medio ambiente y la sostenibilidad.

El estudio ambiental estratégico tendrá, al menos, el contenido mínimo establecido en el anexo IV de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, así como el contenido que, para los informes de sostenibilidad ambiental, establece el anexo II del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

En el desarrollo de los apartados definidos en dichos anexos, se deberán abordar los aspectos que se han ido señalando en este informe, las cuestiones ambientales que han sido percibidas como problemáticas por las administraciones, instituciones y público interesado en las alegaciones y los que se señalan a continuación:

### 7.1 Resumen del contenido y objetivos principales del plan así como su relación con otros planes y programas.

El estudio ambiental estratégico debe presentar un resumen del contenido del PGOU (o remitirse a este), en el cual se describirán los antecedentes, los objetivos y las actuaciones y determinaciones previstas, junto con el resto de las alternativas consideradas. Se describirá también la planificación temporal de las actuaciones y los instrumentos de desarrollo que se prevean para la planificación

tresnak deskribatuko dira.

Bestalde, HAPO Planak hirigintza-antolamendurako beste tresna batzuekin eta harekin lotura izan dezaketen bestelako lurralde-plan eta plan sektorialekin izan dezakeen harremana aztertu beharko da. Gutxienez, honakoak izan beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Jarraibideak (Lurraldearen Antolamendurako Artezbideak)
- Goierriko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala
- EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (Kantauri Isurialdea) eta haren lehen aldaketa.
- Jarduera eta Ekipamendu Komertzialetarako Lurzoruaren sustapen publikorako Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2009-2021).
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ingurumen Esparru Programa 2020
- Gipuzkoako Energia Foru Plana eta Euskadiko Energia Estrategia
- Klima Aldaketaren aukako Borrokarako Euskadi eta Gipuzkoako Estrategiak.
- Urretxuko Tokiko Agenda 21.

HAPO planaren helburu eta esku-hartzeen eta eremuan nolabaiteko eragina duten plan eta programetako helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta harremana zehaztuko da. Xedea baterako helburuak bultzatu eta HAPO planaren esku-hartzeko alternatiba ezberdinak ebaluatzea izango da, beste programetako helburu eta jardute-ildoekin

pormenorizada de los ámbitos delimitados en el plan.

Por otra parte, deberán analizarse las relaciones del PGOU con otros instrumentos de ordenación urbanística y planes territoriales y sectoriales que pudieran guardar conexión con el mismo. Como mínimo, deberán tenerse en cuenta, los siguientes:

- Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV (DOT)
- Plan Territorial Parcial del Área Funcional del Goierri.
- Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertiente Cantábrica) y su 1ª modificación.
- Plan Territorial Sectorial de promoción pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales.
- Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental (2009-2021).
- Plan Territorial Sectorial de la red ferroviaria en la CAPV.
- Plan Territorial Sectorial de vías ciclistas de Gipuzkoa.
- El Programa Marco Ambiental de la CAPV 2020.
- El Plan Foral Gipuzkoa Energía y la Estrategia Energética de Euskadi
- Las Estrategias Vasca y Guipuzcoana de Lucha contra el Cambio Climático.
- Agenda Local 21 de Urretxu.

Se determinará la coherencia y relación entre los objetivos y actuaciones del PGOU con los objetivos y determinaciones de los planes y programas con incidencia en el ámbito. La finalidad será promover la consecución de objetivos comunes y evaluar las distintas alternativas de actuación del PGOU, en los casos en los que se puedan presentar

gainjarpen, gatazka edo bateraezintasunak ikusiko balira.

Halaber, eragindako eremuan aplikagarri diren gainerako planekiko balizko zeharkako efektuak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Horrela identifikatutako eraginak, hala badagokio, planaren inpaktuak identifikatu eta balioesteko atalean ebaluatuko dira.

solapamientos, conflictos o incompatibilidades con los objetivos y líneas de actuación de los otros programas.

Asimismo, se identificarán los posibles efectos secundarios, acumulativos y sinérgicos con el resto de planes aplicables al ámbito de afección. Los efectos así identificados se evaluarán, en su caso, en el apartado de identificación y valoración de impactos del plan.

### 7.2 Ingurumena babesteari begira, nazioartean, Batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren justifikatzea.

Ingurumen-ikerketa estrategikoan irismeneko dokumentu honetako 3. atalean adierazitako ingurumena babesteko eta iraunkortasuneko irizpideak, edo HAPO plana eratzean finkatutako beste zenbait, udalerriaren antolamenduan zer-nola gaineratu diren azaldu beharko da, ahal denean, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak adieraziz.

### 7.2 Objetivos de protección ambiental fijados en los ámbitos internacional, comunitario, estatal, autonómico, foral y local, así como una justificación sobre la manera en que se han tenido en cuenta en la elaboración del plan.

El EAE deberá explicar el modo en que se han incorporado a la ordenación municipal los criterios de protección ambiental y de sostenibilidad señalados en el apartado 3 de este documento de alcance, u otros que se hayan establecido durante la formulación del PGOU, empleando, cuando sea posible, indicadores y límites establecidos o propuestos.

### 7.3 Urretxuko udalerriaren ingurumen arloko ezaugarriak eta horien bilakaera klima-aldaketa kontuan izanik.

Ikerketak Urretxuko udalerriaren ingurumen arloko ezaugarrien deskribapen bat jaso beharko da, egungo egoerari buruzko diagnosi bat eginez. Horretarako, beharrezkoak diren ikerketa espezifikoak egingo dira, kontsultatutako informazio-iturriak eta bibliografia, Burututako landa-lana eta erabilitako metodologiak adieraziz.

Diagnosian natura-, nekazaritza- eta paisaia-baliabideen egoera nahiz hiri-, industria- eta landa-zonaldeen ingurumenaren kalitatea deskribatuko dira, eta bereziki babestu edo zaindu beharreko elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerriak ingurumen

### 7.3 Caracterización ambiental del municipio de Urretxu y su evolución teniendo en cuenta el cambio climático.

El estudio debe contener una descripción de las características ambientales del municipio de Urretxu, realizando diagnóstico de su situación actual. Para ello, se realizarán los estudios específicos necesarios, indicándose las fuentes de información y bibliografía consultada, el trabajo de campo realizado y las metodologías utilizadas.

En el diagnóstico se describirán el estado de los recursos naturales, agrarios y paisajísticos, la calidad ambiental de las zonas urbanas, industriales y rurales y se identificarán los elementos y/o recursos que deban ser especialmente protegidos o salvaguardados.

Este apartado incluirá, además, un análisis de

alorrean pairatzen dituen presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPO planean zer-nola eragingo duten edo planak berak arazo horiek larriagotuko ote dituen balioesteko.

Deskribapena ez da bitarteko fisikoaren ezaugarriak ipintzera mugatu behar, aitzitik, planean ezarritako antolamenduaren ondorioz modu adierazgarrian alda daitezkeen hiri-metabolismoko alderdi edo aldagaien gaineko informazioa jaso beharko da, esate baterako, uraren hornidura eta saneamendurako sistemak, mugikortasun-sistema (garraio publiko / pribatua, motorduna / ez motorduna) edota zarata-mailak jasoz.

Udalerriari buruzko ingurumen arloko egoeraren diagnosia egin ondotik, haren bilakaerari buruzko aurreikuspena burutuko da, hala ingurumenean eragina izan dezaketen joera sozioekonomikoak nola espero den klima-aldaketa kontuan hartuz. Azken alderdi horri dagokionez, udalerrian klima-aldaketarekin lotuta izan daitezkeen inpaktuak identifikatu eta, era berean, haietara egokitzeari dagokionez lehentasunez esku-hartzeko eremuak identifikatzea komeni da.

Behin Urretxuko ingurumen arloko ezaugarri orokorra deskribatuta, HAPO planari jarraiki esku-hartze adierazgarri edo inpaktu handienekoak hartuko dituzten zonalde edo kokapenen ezaugarriak ipiniko dira xehetasun handiagoaz, esate baterako, hirigintza-garapena hartzea aurreikusten den eremuetan.

